



DURANGOKO UDALA

**KULTURA, GAZTERIA, KIROLAK ETA
HEZKUNTZA ARLOKO ZERBITZUAK**



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

1. NORTZUK GARA

Kultura, hezkuntza, gazteria eta kirol arloa Herrigintza sailari atxikitako unitatea da, eta Durangoko biztanleen kultura, hezkuntza eta kirol-beharrak asetzeaz arduratzen da. Horretarako, zerbitzu eta jarduera sorta zabala eskaintzen du.

Kulturaren eremuan, sailak proiektuak, programak eta zerbitzuak bultzatzen ditu, herritarrei oinarritzko eta beharrezko kultura-zerbitzuak bermatzeko, Durangoko kultura eta gizarte-bizitza garatzeko eta bertan parte hartzeko. Horrez gain, askotariko kultura-eskaintza sortzen du, eremu horretan diharduten kultura-eragileek ekimen pribatutik edo beste erakunde publiko batzuetatik edo hirugarren sektoretik egindako ekimenetan eta ekintzetan oinarrituta. Gainera, lehiatzko deialdien eta hitzarmenen bidez, udalaren kultura-eskaintza aberasten duten elkarten ekimenak finantzatzen ditu.

Era berean, gazteen gizarteratze egokia ahalbidetzeko politikak bultzatzen ditu arloak, eta gazte-politika integralak garatzen ditu, erakunde arteko eta sail arteko lantaldeak koordinatuz. Gainera, gazteen emantzipazioa sustatzen du alokairurako laguntzen bidez.

Kirol-arloan, laguntza, aholkularitza eta finantzaketa ematen zaie kirol-erakundeei, Durangon kirol-eskaintza egin eta osatzeko. Era berean, Durangoko goi-mailako kirolariei laguntzen zaie, beka sistema baten bidez, haien kirol lorpenei balioa emateko.

Hezkuntza arloan dituen eskumenei dagokienez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak egiten ditu arloak, eta, horretarako, lankidetzak-hitzarmenak ezartzen ditu Zabalarako eta Landakoko ikastetxeetako guraso elkarteekin. Gainera, eskola kontseiluaren eta haur kontseiluaren saioak antolatzen ditu, hezkuntza-eragileekin zuzenean, aktiboki eta parte hartze osoz komunikatzeko.

2. HELBURUAK

Kultura, hezkuntza, gazteria eta kirolaren alorrak lehentasunezkoztat jotzen du honako helburu hauek lortzea:

1. Kalitatezko kultura-programak sustatzea eta Durangoko errealitatera egokitutako ekintza berriak programatzea

2. Haur eta gazteei zuzendutako kultura-jarduerak programatzea, sektore horretan kultura-erabilerak sustatzeko

3. Sormena eta kultura-proiektuak sustatzea hainbat arlotan

4. Durangoko elkarten proposamenak indartzea, behar diren azpiegituren erabilera erraztuz eta behar ekonomikoak ekarriz

5. Herritarrei Durangoko kultur baliabideak erabiltzeko aukera eskaintzea

6. Herritarren eta elkarten parte-hartzea sustatzea, baliabideen eta espazioen bidez

7. Kultura, gazte, kirol eta hezkuntza erakundeei zuzendutako diru-laguntzen ildoei buruz aholkatzea eta horiek artikulatzea, beren jarduera garatzean

8. Beste kultura-erakunde eta eragile batzuekin elkarlanean aritzea, Durangon kultura eta kirol-eskaintza egokia eta aberatsa sustatzeko

9. Haurrak eta nerabeak gizartearen parte izateko helburua indartzea, ez bakarrik heldutasun-etapa bat.

10. Haur eta gazteen iritziak jasotzeko eta udal plangintzan txertatzeko parte hartzeko bideak sortzea

11. Haur eta gazteentzako guneen eskaera indartzea eta zabaltzea

12. Haur, gazte eta helduen artean bizimodu osasungarria sustatzea

3. ARLOKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK

ZERBITZUA	KOKAPENA	HARTZAILEAK		PREZIO PUBLIKOA/ TASA
Kultura zabaltzeko, esku-hartze ludikoko eta prestakuntzako programak eta zerbitzuak planifikatzea, kudeatzea, koordinatzea eta gauzatzea	Programazioaren arabera	Programazioaren arabera	Gabonetako umeen parkea	1€
			Gabonetako emanaldia	5€
			Ihauterietako programazioa	
			Euskal Jaiak	
			Gabonetako programazioa	
			Jolas Eguna	
			Udaro (udako aisialdi programa)	90€/hamabos taldia
Memoria historikoa zaintzeko programen kudeaketa			Martxoak 31ko ekitaldiak	
Diru-laguntzak izapidetzea eta kudeatzea		Oinarrien arabera		
Ikastaroak eta formakuntza			Kultur tailerrak	
Kultura, kirol, gazteria eta hezkuntza elkarteei arreta, informazioa eta orientazioa ematea				
Kultur azpiegituren kudeaketa	Landako Sotoak			
	Ezkurdiko udal erakusketa aretoa			
	Merkatu plazako lokalak			

4. KONTAKTUA

ZERBITZUA	HELBURUA	TELEFONOA	E-MAIL
Kultura, hezkuntza, gazteria eta kirol arloa	Zeharkalea, 3. 48200. Durango	94 603 00 13	kultura@durango.eus
Landako Sotoak	Muruetatorre, 11. 48200. Durango	94 603 00 47	landakosotoak@durango.eus
Ezkurdiko erakusketa aretoa	Ezkurdi. 48200. Durango	94 603 00 13	
Merkatu Plazako lokalak	Monago Torre. 48200. Durango	94 603 00 13	
Durango Irratia	Larrasoloeta, 5. 48200 Durango	94 621 55 99	durangoirratia@durango.eus

Kultura, gazteria, kirolak eta hezkuntza
HERRIGINTZA ARLOA



DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir